



2025 URTEKARIA ANUARIO

Sagardoaren Lurraldea




**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la sidra

2025eko **urtekari** honek sagardoaren munduko ekitaldi nagusiak bildu, eta albiste esanguratsuenen berri ematen du.

Este **anuario** del 2025 recopila los principales eventos del mundo de la sidra y se hace eco de sus principales noticias.



Sagardoaren Lurraldea
(el territorio de la sidra)
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
t: 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus

Argazkiak // Fotografías:
Azala · Portada: Haritz Rodriguez
3-4-5-6-7-12-13-14-21: Sagardun Partzuergoa
3. orrialdea: Albaola Faktoria
8-9-10 orrialdeak: Haritz Rodriguez (Ciderzale)
11. orrialdea: Kühbrein Most
14-15 orrialdeak: Astigar E.O.E
18. orrialdea: Les Ramougeries de Pommé
19. orrialdea: Dominic Lagadec
22-23 orrialdeak: Fraisoro Ingurumen eta Nekazal Laborategia





XXXII. SAGARDO BERRIAREN EGUNA 2025

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 15ean **XXXII. Sagardo Berriaren Eguna 2025** izan zen Astigarragan. "Gure Sagardo Berria!" oihu eginda, **Gure Zirkuak** 2025eko txotx bolada ireki zuen Alorrenea sagardotegian. Aurretik sagarrondo berri bat landatu zuen Erribera Kulturguneko plazan.

2024an Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin ekoiztu zen sagardo litro kopurua, 1.300.000 litro ingurukoa izan zen. Euskal Sagardoa egin zuten sagardotegiak 46 dira: arabarra 1, bizkaitarrak 3 eta gipuzkoarrak 42. Euskal Sagardorako sagarra egiten duten sagargileak 250 dira eta guztira ia 500 hektarea erabiltzen dira horretarako. 2024an 2 milioi kilo pasa sagar bildu dira Euskal Sagardorako.

Organizado por Sagardoaren Lurraldea, el 15 de enero se celebró el **XXXII. Sagardo Berriaren Eguna 2025** en Astigarraga. Al grito de "Gure Sagardo Berria!", **Gure Zirkuak** abrió la temporada del txotx 2025 en la sidrería Alorrenea. Antes plantó un manzano en la plaza de Erribera Kulturgunea.

En el año 2024 se elaboraron alrededor de 1.300.000 litros bajo la Denominación de Origen Euskal Sagardoa. Un total de 46 sidrerías elaboran sidra con Denominación de Origen Euskal Sagardoa: 1 en Araba, 3 en Bizkaia y 42 en Gipuzkoa. 250 productores de manzana, que suman un total de 500 hectáreas de producción. En la campaña de 2024 se recolectaron 2 millones de kilos de manzana local.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN SAGARDO LEHIAKETA

Zarauzko Izeta sagardotegia izan zen **XXIV. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sagardo Lehiaketako** irabazlea. Bigarren saria Astigarragako Zapiain sagardotegiak irabazi zuen eta hirugarrena Hernaniko Alzuetak. Horiez gain, Aburuza sagardotegiak sagardo apardun onenaren saria eraman zuen eta Itxasburu sagardotegiak sagardo berritzailearena "Batekoa" sagardoagatik.

La sidrería Izeta de Zarautz ganó el XXIV Concurso de Sidra de la Diputación Foral de Gipuzkoa. El segundo premio recayó en la sidrería Zapiain de Astigarraga y el tercero en la sidrería Alzueta de Hernani. Además, la sidrería Aburuza ganó el premio a la mejor sidra espumosa, y la sidrería Itxasburu el premio a la sidra más innovadora con la sidra "Batekoa".





VI. SAGARDO FORUM 2025: SAGARDOAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA ASTIGARRAGARA ETA DONOSTIARA ITZULI DA AZAROAN

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, 2025eko azaroaren 20tik 22ra VI. Sagardo Forumia izan da Astigarragan zein Donostian. Ekitaldiak sagarrari, sagardoari eta sagardoaren kulturari, ondareari eta turismoari buruzko jardunaldi teknikoak, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta Nazioarteko Sagardo Azoka jaso ditu egitarauan.



JARDUNALDI TEKNIKOAK

Azaroaren 20an eta 21ean VI. Sagardo Forumaren baitan, jardunaldi teknikoak izan dira Astigarragako Erribera Kulturgunean. Tokiko, estatuko eta nazioarteko adituek ondarea, museologia, turismoa, sagarraren laborantza eta sagardoaren elaborazioa izan dituzte, besteak beste, eztabaidagai.

Hala, **ondareari** buruzko atalean, hainbat hitzaldi eskaini dira: Xabier Urdangarinek (Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko presidentea) berriki abian jarritako 'Dolareak' proiektuari buruzko azalpenak eman ditu. Jabier Lekuonak (Hirigintza arkitektoa eta Peio Martikorena Fundazioko kidea) *Egurra eta kultura ondarea* izan du hizpide. Ildo beretik, *Dolareak, base-riak, egurra eta ondarea* izenburupean solastu dira Ibon Telleria (EHUko irakaslea den Arkitekto doktorea) eta Josue Susperregi (Arkeolan Fundazioko zuzendaria zein Dendrokronologia Laborategiko arduraduna).

Museologiari eskaintako ardatzean, Jordi Abellak (Ecomuseu de les valls d'Àneu-ko zuzendaria), Pere Casasek (Museu del Ter-eko arduraduna) eta Roser Vilardell i Arealok (Museu Etnogràfic de Ripoll-eko

zuzendaria) parte hartu dute. *Herritarrei irekitako museoak* lelopean, gaiari buruzko ezagutzak partekatu dituzte Erribera Kulturgunera bertaratutako publikoaren artean. Hitzaldi bana eskaini dute, eta ondoren, Ainhoa Bernabe Eusko Jaurlaritzaren Museoen Zentroko teknikariak gidatutako mahai-ingurua izan da.

Jardunaldi teknikoetan landutako gaien artean, **turismoa** ere jorratu da. Horretarako, hainbat aditu gonbidatu ditugu gurera: Paolo Spagnolo (Suitzako MoMö Museum Museoko Kudeatzailea) *MoMö Museum: kontsumitzailearekin konektatzeko eta etorkizuneko oinarriak ezartzeko gakoak* eskaini ditu.

Manuel Niembro asturiarrak, *Ruta'1 Quesu y la Sidra: Asiegun zehar egindako txango geografikoa, Asturias-ko paisaia, kultura eta gastronomian barrena* izan du hizketagai.

Sagardo Forumaren lehengai nagusia **sagarra** da, eta ohi bezala, gai horri ere tarte bat eskaini zaio jardunaldi teknikoetan. SERIDAKO Barazki, Fruta eta Baso Laboreen Arloko Ikertzailea den Aitor Somoanok *Satainaren kontrol integratua*-ren gaineko argibideak eman ditu; Jordi Sabatek (Nekazaritzako ingeniari doktorea eta Cabrilseko IRTAren 'Protecció Vegetal Sostenible' Programako ikertzailea) *Sagarrondoaren ugalketaren*

Jardunaldi teknikoetan ondarea, museologia, turismoa, sagarraren laborantza eta sagardogintza izan ziren ardatz nagusiak





fitoplasma: epidemiologia eta kontrola-ri buruz aritua; eta The Regen Academy-ko aholkularia den Nuri Madeok nekazaritza birsortzailearen gaiari heldu dio bere hitzaldian: *Nekazaritza birsortzailea sagarraren laborantzian*. Aitor Etxeandiak, frutikulturaren aholkularia, gidatu du aipatutako tartea.

Sagardoa ardatz izan duen atalean, **hezkuntzaren** eta **komertzializazioaren** gaiak landu dira. EDA Drinks & Wine Campus-eko zuzendariak, Elisa Ucarrek, *EDA Drinks & Wine Campus: 360 ikuspegia sagardoaren alorreko prestakuntzan* izenburupean hitzaldia eskaini du. Ondoren, Haritz Rodriguez (pommelierra eta sagardoaren alorreko hezitzailea) arduratu da mahai-ingurua moderatzeaz. *Nola izan presentzia saltokietan?* galderari erantzunez, zenbait arrakasta-kasu ezagutzeko aukera era izan da gonbidatu hauekin: Carlos Lopez de Lacalle (Artadi upategien jabea), Joseba Martikorena (Martiko-ko zupendari orokorra) eta Arantxa Goenaga (Goenaga Esnekiak-eko kudeatzailea). Denek beren esperientzien berri eman dute, eta ondoren, Ion Zapiain Zapiaingo salmenta arduradunak gidatutako mahai-inguruan parte hartu dute. Parisen kokatuta dagoen La Cidrerie taberna-sagardotegiaren sortzaileak, Benoît Marinosek, amaiera eman dio azaroaren 21eko saioari *Sagardoa saltzearen artea: edalontzitik taulara* aurkezpenarekin.



NAZIOARTEKO SAGARDO LEHIAKETA

17 herrialde tako sagardo ekoizleek (Portugal, Norvegia, Herbehereak, Letonia, Frantzia, Polonia, Lituania,

Txekiar Errepublika eta Ameriketako Estatu Batuetakoak, besteak beste) parte hartu dute Sagardo Forumeko Nazioarteko Sagardo Lehiaketan. Guztira, **204 produktu** aurkeztu dira aurtien, bederatzi kategoriatan sailkatuta. Azaroaren 20ko arratsaldean, estatuko eta nazioarteko **30 epailek** dastatu eta puntuatu dituzte sagardoak Donostiako Basque Culinary Centerren. 10 mahaitan bildu dira, eta sagardoak banan-banan baloratu dituzte, kategoria bakoitzeko dominak emateko. **176 domina** banatu dira guztira: **61 urre, 81 zilar eta 34 brontzezkoak**.

Hauek izan dira Nazioarteko Sagardo Lehiaketako ohorezko txapelaren **irabazleak**:

'Best of Show' saria: Cydonia - Weidmann & Groh (Alemania)

Kategoria bakoitzeko irabazleak:

- **Sagardo naturala:** Zapiain Euskal Sagardoa Premium 2024 - Zapiain Sagardotegia (Euskal Herria).
- **Garratzasuna nagusi duen sagardoa:** Semi Sweet still apple Cider - Mr. Plume Cidery (Letonia).
- **Mikatzasuna nagusi duen sagardoa:** Dabinett (Keeved) - South Hill Cider (AEB).
- **Premium sagardo aparduna:** Cuveé Brut - South Hill Cider (AEB).
- **Udardoa:** Alte Mostbirnen 2021 - Gutshof Kraatz (Alemania).
- **Zaporetakoa edo mistoa:** Cydonia - Weidmann & Groh (Alemania).
- **Sagardo berriak:** Gaitero Rosé - Valle Ballina y Fernández (Espainia).
- **Postrerako sagardoa:** Sidra de Gel - Mooma Obrador (Espainia).
- **Kategoria irekia:** Vermú con sidra Kuartango - Kuartango Sagardotegia (Euskal Herria).



NAZIOARTEKO SAGARDO AZOKA

Sagardoaren Nazioarteko Azoka Donostiako Basque Culinary Centerren izan da

aurten. Hala, azaroaren 22an, munduko txoko guztietan egiten diren sagardo mota ezberdinak ezagutzeko eta dastatzeko aukera izan da.

Bertako, nazioko eta atzerriko **23 ekoizlek** (Norvegia, Austria, Lituania, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Letonia, Italia, Txile, Ameriketako Estatu Batuak, Espainia zein Euskal Herrikoak) beren produktuak dastatzen eman dituzte azokan. Sagardo naturalak, apardunak, zaporetakoak, udardoak, garratzasuna ala mikatzasuna nagusi dutenak, postrerako sagardoak eta berriak. Bertaratutakoek stand bakoitzean eskainitako produktuak dastatzeko eta ekoizleen eskutik ezagutzeko aukera izan dute. Gainera, Basque Culinary Centerreko ikasleek azokan dastatu diren pintxoak prestatu eta eskaini dituzte.

Halaber, bi dastatze gidatu eskaini dira: lehena, Tano Colladak gidatua, **alkoholik gabeko sagardoetan** oinarritua, eta bigarrena, Satxa Zeberioi eta Ion Zapiainek gidatua, **sagardo-bermutei** eskainia.

Ehunka lagun hurbildu dira Sagardo Forumaren azken edizioko azokara. Aurten, berritasun gisa, doako autobus zerbitzua izan da Hernanitik zein Astigarragatik Basque Culinary Centerre gerturatu nahi izan duten herritarrentzat.

AFARI BEREZIAK ETA TXANGOAK

Aipatutako jardueraz gain, aurten txango ezberdinak eskaini zaizkie Sagardo Forumean parte hartu duten ekoizle eta eragileei: Astigarragako Sagardoetxea

Museoa, Ezkio Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoa, Donostiako Aquariuma eta Astigarragako Zapiain Sagardotegia.

Arrakasta handia izan dute, era berean, VI. Sagardo Forumaren baitan antolatutako gainerako jarduerak ere. Horietako bat, Donostiako Tabakalerako LABe jate-txean eskainitako irekiera afaria izan da. Bertan, tokiko zein nazioarteko sagardoak dastatzeko aukera izan da, eta ekoizleek dastatutako sagardoei buruzko azalpenak eman dituzte.

Horrez gain, Astigarragako Alorrenea sagardotegian 'txotx erritu' afaria ere izan da txotxaren errituaz eta sagardotegiko menuaz gozatzeko.

SAGARDO FORUMARI BABESA

Beste behin, Sagardo Foruma sagardoaren nazioarteko topaketa gisa gailendu da, eta mila urteko usadioaren azterketarako, ospakizunerako eta sustapenerako oholtza ere bilakatu da. Sagardoazaleentzako derrigorrezko hitzordu honetan, sagardoaren elaborazioari buruzko ezagutzak barneratzeko, mundu osoko sagardoak dastatzeko eta sagardoaren kulturaz gozatzeko bideak ireki zaizkie herritarrei.

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Astigarragako Udalaren eta HAZIren babesa izan du ekitaldiak, baita Euskal Sagardoa, Fraisoro eta Fruitel elkartearen zein EDA Drinks & Wine Campus eta Basque Culinary Centerren laguntza ere.

Sagardoaren Lurraldea





SAGARDO FORUM: UN ANTES Y UN DESPUÉS

Desde que en 2017 se celebrara la primera edición de Sagardo Forum, el escenario local e internacional de la sidra ha cambiado de forma sustancial. En apenas unos años se ha consolidado una comunidad global cohesionada y bien conectada en torno a la sidra, la sidra vasca ha reforzado su reputación internacional y el sector ha iniciado un proceso de diversificación sin precedentes. La sidra ha vivido una evolución que muchos ya definen como una revolución, y Sagardo Forum ha aportado su granito de arena. Recogemos en este artículo algunos testimonios que lo corroboran.

Uno de los principales impactos del Sagardo Forum ha sido el posicionamiento internacional de la sidra vasca. Elaboradores, comunicadores y prescriptores coinciden en que el evento ha permitido mostrar una realidad mucho más amplia y contemporánea de la sidra vasca, más allá de los estereotipos históricos. La posibilidad de catar sidras recién elaboradas, conocer de primera mano las bodegas y dialogar directamente con los productores ha generado una comprensión más profunda del estilo, la calidad y la diversidad del territorio. Así lo cree **Abram Goldman-Armstrong**, elaborador estadounidense afincado en Noruega, quien asegura que “asistir a Sagardo Forum ha permitido a muchos elaboradores entender mejor qué es la sidra fresca vasca y apreciar la variedad de estilos que se producen, más allá de la idea de que toda sidra vasca es muy ácida u homogénea”.

Sagardo Forum también ha sido clave en la cohesión de las culturas sidreras a escala global. Desde su primera edición ha reunido a productores, investigadores, jueces, periodistas y divulgadores de todo el mundo, creando un espacio de intercambio abierto y colaborativo. Las ponencias y mesas redondas han abordado ámbitos tan diversos como la producción, el cultivo de manzana, la sostenibilidad, el turismo, el patrimonio cultural o la comercialización, favoreciendo un diálogo transversal entre tradición e innovación. En palabras de **Arita Akre**, elaboradora de la bodega Edel en Noruega, “Sagardo Forum crea un espacio único donde productores, investigadores, jueces y narradores se sientan a la misma mesa, fomentando la transparencia, el intercambio honesto y una colaboración que perdura más allá del evento”.

El impacto del evento se refleja también en la propia evolución del sector sidrero vasco. En los últimos años se ha ampliado notablemente la gama de productos: sidras espumosas, sidras de hielo o de fuego, elaboraciones monovarietales, de parcela única o incluso nuevas combinaciones con otras frutas. Este proceso está ligado a un relevo generacional, a una mayor formación técnica y a una apertura hacia experiencias y conocimientos adquiridos fuera del territorio. Lo subraya **Franz Egger**, de la sidrería Floribunda en Sud Tirol, quien también destaca que “participar en el Forum nos dio un empujón para interesarnos más, abrirnos al mundo de la sidra internacional y buscar nuestro propio estilo con las manzanas que tenemos en casa”.

La diversidad de estilos también es señal de apertura y curiosidad entre generaciones. **Jesús Armenteros**, referente en la revitalización de la sidra gallega, comenta: “En las primeras ferias a las que yo acudí con sidras de nueva tendencia, con lúpulo o frambuesa, los sidreros vascos -padres e hijos- se acercaban con curiosidad. Hoy conviven sidras naturales de muy alto nivel con sidras de estilos más vanguardistas sin renunciar a la personalidad del ‘terroir’ vasco”.

La dimensión internacional del evento se refuerza con la participación de cientos de sidras en la competición y un programa de conferencias que refleja la complejidad del sector. La diversidad de ponencias cubre producción, cultivo, patrimonio, cultura, turismo y técnicas innovadoras, mostrando que la sidra vasca no solo es tradición, sino también innovación y creatividad. A juicio de **Gabe Cook**, prestigioso comunicador y divulgador de la sidra británico conocido como The Ciderologist: “Antes, la sidra vasca era algo que muchos conocían de oídas; hoy, gracias a Sagardo Forum, está representada en todos los grandes eventos internacionales y se reconoce su tradición y calidad”.

En similares términos se expresa **Darlene Hayes**, Pommelier certificada y WSET diploma de EEUU: “El País Vasco siempre ha estado presente en la mente de quienes aprecian tanto la gastronomía como la sidra. Establecer conexiones personales y descubrir el país a través de los ojos de personas que realmente lo conocen genera un vínculo más profundo y permite ofrecer recomendaciones personalizadas a quienes desean viajar allí. Celebrar una conferencia de un nivel profesional tan alto no puede sino promover la imagen del País Vasco y de su sidra como una parte muy importante del panorama global”.

Para **Jasper Smith**, elaborador de sidra inspirada en la vasca e importador de *sagardoa* (Oregón, EEUU), “muy pocos conocen la sidra vasca y su profunda historia. Ni siquiera los profesionales. Sagardo Forum muestra un espectro completo de productores, grandes y pequeños. Los asistentes se llevan una nueva comprensión de cómo se elabora la sidra, su vínculo intrínseco con la gastronomía vasca, y se inspiran al ver que las sidras basadas en la cosecha y elaboradas 100% con zumo de manzana fresco se pueden producir a cierta escala. En EEUU este es un concepto completamente novedoso”.

Sagardo Forum es ya un evento consolidado reconocido como un espacio donde la sidra se piensa, se debate y se proyecta al futuro. Un lugar en el que el País Vasco no solo se presenta como una tierra que produce sidra, sino como uno de los corazones intelectuales y culturales de la sidra contemporánea. Como señala **Goldman-Armstrong**, la innovación en el País Vasco demuestra que tradición e innovación conviven y se refuerzan mutuamente. Sagardo Forum ha marcado un antes y un después para un sector que ha decidido mirar al mundo sin perder su identidad.

Haritz Rodriguez @Ciderzale | Pommelier y divulgador de la sidra





HIRU LANBIDE-HEZIKETA ZENTROTAKO ZURGINTZA IKASLEEK ASTIGARRAGAKO XVII. MENDEKO SAGARDO-DOLARE BAT ZAHARBERRITUKO DUTE

Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdiko 3 lanbide-heziketa zentrotako ikasle gazteen ahaleginari esker, 400 urte baino gehiago dituen sagardo-dolare bat berreskuratu, zaharberritu eta berriro muntatuko da.

'Dolareak' ekimena Peio Martikorena Fundazioak sustatu du, Astigarragako Udalarekin eta hiru hezkuntza-zentrokekin lankidetzan, eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak kofinantzatuta.

Ezagutzen den eta gorde den mota honetako dolare bakarra da Erbetegi-Etxeberri baserrikoa. Abereen indarraz mugitutako 'matxaka' zuen, eta ardatz bi-koitzeko dolareari eskuz eragiten zitzaion

Urriaren amaieran Astigarragako udal biltegian egindako aurkezpenean, **CIF Donibane** (Nafarroa), **EASO Politeknikoa** (EAE) eta **Fédération Compagnonnieque** (Akitania Berria) lanbide-heziketa zentroetako ikasle talde batek Astigarragako **Erbetegi-Etxeberri** baserriko sagardo-dolarearen zaharberritze lanen berri eman zuen prentsaurrean. XVII. mendeko dolare baten zaharberritzean ari dira lanean, urteetan zehar kontserbatu dena, eta orain, 'Dola-

reak' proiektuari esker, bizia berreskuratuko duena. Aurkezpen hartan, Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak, Marie Heguy-Urain Euroeskualdeko Hiritartasun proiektuen arduradunak eta Compagnons du Tour de France zentroko egurrezko egituren irakasle Iban de la Fuentek parte hartu zuten. Alkatearen esanetan, 'Dolareak' proiektuak hiru helburu nagusi ditu: "dolare zaharrak berreskuratzea eta zaharberritzea; gazteei lanbide tradizionalak irakastea prestakuntzaren bidez; eta programa eleanitz baten bitartez, mugaz gaindiko lankidetzatza sustatzea Euskal Herrian". Astigarragako alkatearen arabera, "duela bost mende hasitako bidaia baten jarraipena da hau, baina ez da azken geldialdia". Udaletik lankidetzatza emankor baten lehen urratsa izatea espero da.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko ordezkariak, bere aldetik, zera azpimarratu zuen: haien helburuak betetzen dituen egitasmo baten adibide ona dela honakoa, "mugaren bi aldeetako garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzen duelako, ondarea eta hezkuntza ardatz hartuta, mugaz gaindiko lankidetzaren bidez".

Aipatutako dolarea zaharberritu eta muntatzeko lanetan parte hartuko duten ikasleak zuzendu eta trebatzeaz arduratuko den irakasleetako bat Compagnons zentroko Iban de la Fuente izango da. "Gaur egun egurrea eraikuntzan gero eta gehiago erabiltzen den arren, egur zaharra oso gutxi berrerabiltzen dela" adierazi zuen de la Fuentek, "moztu eta sutara botatzen baita. Egur zaharrek historian arakatzeko bide ematen digute, bizirik daude eta material gisa ezinbesteko garrantzia





dute oraindik ere”, erantsi zuen.

Erbetegi-Etxeberri baserria bi etxebizitzatan banatuta zegoen: Goikoetxea eta Izeta familiak bizi ziren bertan. Ezagutzen den eta gorde den mota honetako dolare bakarra da Erbetegi-Etxeberri baserrikoa. Abereen indarrak mugitutako ‘matxaka’ zuen, eta ardatz bikoitzeko dolareari eskuz eragiten zitzaion. Lau lagun behar izaten ziren ardatz bakoitza lanean jartzeko. Baserrian sagarra jo, estutu eta prozesu honetatik ateratako muztio gehiena Donostiako tabernetan saltzen zen. Barrikote bat betetzen zen joaldi bakoitzean, eta sagardo prest zegoenean, auzokideak gonbidatzen zituzten hura dastatzera. Horretarako, txalaparta jotzen zuten. Goikoetxea familiak, hain zuzen ere, funtsezko papera bete zuen perkusio-instrumentu honen mantentze eta berreskuratze lanetan. Juan Mari Beltranek nahiz Joxean eta Jesus Mari Artze anaiak ere, Goikoetxeataren eskutik ikasi zuten txalaparta jotzen.

Aipatutako 3 zentroetako ikasleek gauzatuko dituzten lanen artean, zehazki honakoak daude: antzinako egurraren ezaugarriak eta berezitasunak ulertzen ikasiko dute; egurra garbituko dute, bere egoera ebaluatzen; eta babes-tratamendu bat ere aplikatuko diote. Gainera, sagardo-dolare batean egurra nola kokatzen zen ikasiko dute gazteok, eta egur zaharrenekin nola lan egin irakatsiko zaie. “Ezagutza hori transmititu nahi diegu ikasleei, gaur egun egurra tresna modernoekin lantzen baita, baina egurra zaharra denean, eskuz landu beharra dago”, erantsi zuen de la Fuente irakasleak.

Dolarea muntatu ondoren, egurra datatuko da bere iraganaren berri izateko. Eta 3D eskaneatu digital bat egingo zaio, etorkizuneko prestakuntza-materialetan baliabide didaktiko gisa erabili ahal izateko.

‘Dolareak’ egitasmoari esker, hortaz, sagardoarekin lotutako gure ondarearen funtsezko pieza bat berreskuratuko dugu, gure kulturen eta bereziki Astigarragan errotuta dagoena. Eta, bide batez, egurrak sagardogintzan toki garrantzitsua izan duela jabetuko gara.

Ondarea berreskuratu eta zaindu

Ondarea zaintzeko eta balioan jartzeko ildo horretan, sagarrarekin eta sagardoarekin lotutako ondarea erdigunean jarriko duen proiektuaren lehendabiziko pausoak eman dira ‘Dolareak’ proiektuarekin. Sagardo Forumeko jardunaldi teknikoetan aurkeztu zen moduan, Peio Martikorena Fundazioaren lankidetzari esker, Ergobia auzoan Urumea ibaiaren ertzean zutik jarraitzen duen Cementos Rezola fabrika zaharra zaharberrituko da. Egurrarekin, sagarrarekin eta sagardoarekin lotutako ondarea hartuko duen gune bilakatu da hori, eta herritarrei irekiko zaie hainbat ekimen parte-hartzailearen bidez.

Jabier Lekuona arkitekto nafarra arduratuko da espazio berriaren diseinuaz. Lekuona Arkitektura arkitekto nafarraren estudioa izan da, besteak beste, Pasai San Pedroko Albaola ontziolako berrikuntza lanen ardura duna.

Sagardoaren Lurralde

Iban de la Fuente arozgintzaren munduan txikitatik murgildutako profesionala da. 18 urterekin Angelura jo zuen Compagnons ikastetxean ikasketak egitera, aita arotza izanik etxetik jasotako ogibideari jarraipena emateko. Gaur egun, hamahiru urte daramatza ikasi zuen ikastetxe berrean maisu lanetan.



Iban de la Fuente (Compagnons du Tour de France zentroko egurrezko egituren irakaslea)

Nola hartu zuten ikasleek 'Dolareak' proiektuan parte hartzeko aukera?

Ikasleek beti pozik eta ilusioz hartzen dituzte proiektuak. Ikasgelatik atera nahi dute. 'Dolareak' proiektuan ez dago bakarrik lana dolarearen berrikuntzan, irteerak ere badaude, sagardo, baserri, gure ondare eta kulturari lotutakoak. Beraz, guzti horrek erakargarriago egiten du ikaslearentzako horrelako proiektu bat.

Nolakoa izan da beraiantzat XVII. mendeko pieza batekin lehen harremana izatea?

Iritsi ginen egunean, hautsa eta egur multzo sakabana-tu desberdinekin topo egin zuten. Lehen erreakzioa ez zen oso ona izan, baina egunak pasa ahala, egurra garbitu ondoren tratamendua eman zitzaion egurrari, bere bizitasuna berreskuratzeko. Honek harridura momentu batera eramaten zituen ikasleak. Dolarearen muntaketa burutzen deneko harridura horrek harrotasun puntura eramaten ditu. Badakite egitura berezi batean lan egiten ari direla, eta itxura batean balio gutxi zuten egur zatiak berriz balorean jartzean, motibatu egiten dira.

“Horrelako proiektu bat ikastetxetik kanpo lantzen denean, ikasleari bere lanbidean jarduteko gogoia baieztatzen zaio”

tsiko diegu egurra nola kokatzen den baserri edo dolare batean zuhaitzak izan duen hazkuntzaren arabera, eta baita egur zaharra ere nola landu egitura bat egiteko. Egur zaharra lantzeko teknika ia desagertua dago, eta hori erakutsi nahi diegu.

Zer esango zenuke izan dela beraiantzat zailena eta, zer aberasgarriena?

Hiru ikastetxe direnez, zailena hizkuntza eta beraien artean kontaktuan sartzea izan da. Egin duten egonaldi osoa izan da aberasgarria beraiantzat. Lehen esan bezala, dolarea dago, baina inguruan egin diren jarduerak eta bisitetan asko ikasi dute. Kulturalki, gure euskal kulturaren inguruan ikasi dute, adibidez txalaparta jo-

tzea nondik datorren edo sagardoa zertarako erabiltzen zuten gure marinelek.

Zer ekarpen egin dio proiektuak beraien formakuntzari?

Ikasle gehienek altzarigintza ikasten dute, ez dute egur egituretan inolako formakuntzarik. Beraz, beste lanbide batean sartu dira eta hura ezagutu dute. Ikasle hauek beti pieza txikiekin lan egiten dute tailer baten barruan. 'Dolareak' proiektuak egur luzeekin, astunekin eta zaharrek lan egitera eraman ditu, leku ireki batean.

Proiektu honek ikasleen ondarearekiko begirada aldatu al du? Nola?

Ondarearekiko ikuspuntua erabat aldatu zaie. Orain arte, ondare bat badagoela eta gorde behar dela zuten buruan, baina ez zekiten zergatia. Lehen egonaldi honen ondoren badakite zergatik berreskuratu behar den. Konturatu dira ondarea berreskuratze horrek argitzen digula nondik gatozen eta baita ere norantza joan nahi dugun.

Nolakoa izan da beste lurraldeetako ikasleekin batera lan egitea?

Lehen kontaktuak beti zailak dira, baina egunak pasa ahala, elkarrekin kontaktuan sartzen dira. Gainera lanbide hauetan lantalde bat ez badago, ez zoaz inora. Beraz, egurrak garbitu edo mugitu dituztenean, elkar laguntzen ibili dira, eta horrek harremanak sortzen lagundu du. Gero elkarrekin irteerak egiteak eta elkarbizitza horrek, oro har, harremanak estutu ditu.

Esperientzia honek ikasleen bokazioan edo lanbide-ikuspegian eraginik izan duela iruditzen al zaizu?

Bai. Horrelako proiektu bat ikastetxeetatik kanpo lantzen denean, askotan ikasleari ofizioan edo berak hautatu duen lanbidean jarduteko gogoia baieztatzen dio. Lanbidearekiko duen ikuspuntua zabaltzen da bere buruan. Bere lanbidean eta kasu honetan egurrekin egin daitezkeen gauza interesgarri guztiak ikusten ditu. Altzari batetik, egurrezko teilatu batera.

Zer uste duzu eramango dutela ikasleek esperientzia honetatik, urte batzuk barru ere?

Harro egongo dira. Dolarea erabat berritzen denean, beraien familiak eramango dituzte erakustera zertan parte hartu duten. Beraz, harro eta zorionsu egongo direla uste dut, historian beraien arrasto txikia utzi dutelako.



STEIRERMOST, UNA MARCA DE CALIDAD Y ORIGEN PARA LA SIDRA DE ESTIRIA

En el corazón verde de Austria, la región de Estiria (Steiermark) guarda una tradición líquida tan antigua como viva: el Most, la sidra o vino de manzana que durante generaciones ha acompañado la vida rural. Históricamente ligada a tabernas y granjas, esta bebida ha experimentado un renacimiento que la aleja del consumo rural y la sitúa en el circuito gastronómico contemporáneo. Lo que antes era un trago asociado a lo rural, hoy se proyecta como un producto gourmet, gracias a Steirermost, una marca colectiva que representa calidad, origen y autenticidad de la región.

Steirermost nace con un objetivo claro: poner en valor la sidra de Estiria y posicionarla como un producto gastronómico de alto nivel, capaz de competir en calidad y personalidad con vinos, cervezas artesanas o ciders internacionales. La marca no es un simple sello comercial. Cada bebida certificada debe superar evaluaciones sensoriales internas, emplear fruta cultivada exclusivamente en Estiria y cumplir prácticas sostenibles que protejan la biodiversidad y preserven manzanas tradicionales. Principalmente se certifican bebidas producidas íntegramente con variedades antiguas de manzana, algunas de ellas casi desaparecidas, que aportan complejidad, acidez equilibrada y carácter como Maschankker, Bohnapfel, Ilzer Rosenapfel, Steirische Schafnase, Kronprinz Rudolf y Champagner Ranette.

La fuerza de Steirermost reside en su dimensión colectiva. Bajo este paraguas se agrupan productores artesanos que, lejos de competir entre sí, apuestan por la colaboración y el intercambio de conocimiento. Cada elaborador aporta su interpretación del Most, marcada por el terroir, las variedades utilizadas y la filosofía de elaboración, pero todos comparten un mismo estándar de calidad y una defensa firme del origen local. Esta cooperación refuerza no solo la calidad del producto, sino también la preservación del paisaje, los manzanales tradicionales y la biodiversidad frutal de la región.

Entre los nombres más representativos destaca David Kargl, de la sidrería Kühbrein Most. Su proyecto simboliza el equilibrio entre tradición y modernidad. "Trabajamos con variedades antiguas porque cuentan historias", explica Kargl. Para él, el Most no es una bebida del pasado, sino una expresión contemporánea del territorio. En su bodega, el tiempo, la paciencia y la observación son tan importantes como la técnica. "Hemos aprendido mucho del intercambio entre colegas. Compartir las mejores prácticas es clave para seguir avanzando", añade, subrayando el espíritu colectivo de la marca. Su

trabajo ha sido reconocido internacionalmente, demostrando que la sidra de Estiria puede competir en escenarios globales.

Uno de los proyectos más innovadores del grupo es el Pinker Most, sidra rosé o rosada, elaborada con la variedad de manzana de pulpa roja Red Love. Michael Pörtl, miembro de Steirermost, describe su singularidad: "Es una manzana de pulpa roja, y de ella surge ese color rosa, casi afrodisíaco y maravilloso en la copa". Günther Brunner, otro productor, explica la evolución del producto: "Llevamos años experimentando con la manzana Red Love... Hoy estamos satisfechos con el resultado". La sidra resultante de la manzana Red Love tiene "un aroma que no se había visto antes, con un sabor extremadamente frutal que recuerda a frutos rojos".

El objetivo de Steirermost no es solo la innovación sensorial, sino también reposicionar el Most estirio en mercados modernos. Los representantes de la marca afirman: "Con nuestro Most de calidad queremos alejarnos de la bebida rural y orientarnos hacia un producto de estilo y tendencia". David Kargl enfatiza que esta colaboración fortalece la identidad colectiva de los productores: la filosofía de trabajo conjunto se refleja en cada etapa, desde el cultivo hasta la degustación final, consolidando la reputación de la sidra estiria como un producto de excelencia.

Beber Steirermost es también conectar con Estiria: con sus paisajes, su cultura agrícola y su hospitalidad. Cada botella refleja el clima, el suelo y la variedad de manzana de la que procede, ofreciendo perfiles que van desde notas frescas y florales hasta sabores complejos, secos y estructurados. Este resurgir del Most impulsa además el turismo gastronómico, invitando a descubrir manzanales, bodegas y tabernas donde la sidra se convierte en hilo conductor de la experiencia local.

En suma, Steirermost representa una nueva forma de entender la sidra: auténtica, sostenible y de alta calidad. No es solo una marca, sino un movimiento que protege el origen, dignifica el trabajo artesanal y proyecta al mundo una tradición profundamente estiria. Gracias a productores comprometidos como David Kargl y a una visión colectiva sólida, la sidra de Estiria vive hoy un momento de reconocimiento y futuro. Steirermost no solo se bebe: se entiende, se comparte y se celebra.

Haritz Rodriguez @Ciderzale | Pommelier y divulgador de la sidra





GIPUZKOAKO DOLAREAK: DOLARE-BASERRITIK PRENTSA ELEKTRIKORAINO

Gipuzkoako sagardo dolareen historia estu lotuta dago baserriaren ekonomiaren eta arkitekturaren bilakaerarekin. Nahiz eta sagardoaren ekoizpena aspaldiko garaietatik etorri, XVI. mendean sortu zen fenomeno erabakigarri bat: dolare-baserriaren hedapen orokortua, etxebizitza eta ekoizpen-unitate egonkor gisa: Ahaide Nagusien gerren amaierak eta botere monarkikoaren sendotzeak barne bake eta biztanleria hazteko garaia ahalbidetu zuten. Egonkortasun horrek, Errege Katolikoaren garaian hasi zen ekonomia-zabalpen zikloarekin konbinatuta, baserriar familiek euren ekoizpen-sistemak berrantolatze eta baserri berriak eraikitze edo zaharrak sakon berritzeko baldintzak sortu zituen.

Oparotasun testuinguru horretan bihurtu zen dolarea landa-arkitekturaren egiturazko osagai. Sagardoak ez zuen soilik etxeko ekonomian garrantzia izan, baita itsasontzi, burdinolak, errota eta tokiko merkatuetako hornidura-sareetan ere. Muztio kopuru handiagoak ekoizteko beharrak prentsa handiak agerrarazi zituen, eta horrek espazio arkitektoniko espezifikokoak behar zituen. Ez zen gehigarri ustekabeko bat soilik; dolareak zuzenean baldintzatu zuen baserriaren kontzepzioa: habearen bultzadari eusteko horma indartuak, zutaberik gabeko beheko solairuak, zimenduetan ainguratutako haritz egur lodiak, eta zoladuran elementu iraunkor gisa integratutako burualdeko harriak eta dolare-harria.

Dolare handiaren monumentaltasunak nortasun-indar nabarmena hartu zuen. Dolare-baserria egonkortasun ekonomiko eta estatus familiarreko sinbolo izan zen: sagarra irakin zezaketen etxeak merkatuko integrazio ahalmena zuen. Horregatik, XVI. mendean zehar, Gipuzkoako landako paisaia gehienetan arkitektura-ere-

du ezagun bat hedatu zen: dimentsio handiko etxeak, hiru solairu, karrerapean edo beheko solairu diafanoa bidearekin, sagarrak gordetzeko ganbara eta ekoizpen-zikloa jarraitzen zuen antolaketatik bertikalarekin —fruta goian, eta prentsaketa behean, muztioa alboko deposituetan—. Hedapena hain zabala izan zen ezen baserri gipuzkoarraren morfologia betiko markatua geratu zen dolareen presentziagatik, eta Donostialdea, Oria, Urola eta Deba inguruetako haranek paisaiaren itxura bereizgarria hartu zuten eraikin mota honen errepikapenagatik.

XVI. mendeko oparotasun hori kontraste nabarmenean dago XVII. mendean hasi zen atzerakadarekin, artoaren etorrerak nekazaritzako oreka sakonki aldatu zuenean. Amerikako landareak, elikagai ekoizpen handiagoa ematen zuen eta biziraupen-beharrarekin eredia desagerrarazi. XVIII. eta XIX. mendeetan, nahiz eta produkzio intentsitate gutxiago izan, dolareek eboluzionatzen jarraitu zuten: torloju metalikoak, prentsa txikiagoak eta harri edo egurrezko depositu erabilgarriagoak sartu ziren. Aldaketa horiek merkatura bideratutako ekonomia batetik eskala txikiagoko ekonomia baterako

Sagardoaren ekoizpena aspaldiko garaietatik datorren arren, XVI. mendean fenomeno erabakigarri bat sortu zen: dolare-baserriaren hedapen orokortua, etxebizitza eta ekoizpen-unitate egonkor gisa





trantsizioa islatzen dute.

Benetako inflexio-puntua XX. mende hasieran gertatu zen, elektrizitatea sartzearekin eta prentsa hidraulikoaren agerpenarekin. Orduan, dolareak baserriaren egituratik guztiz banatu ziren, biltegi, tailer eta instalazio espezifikoean kokatuz. Horrela, landa eremuko arkitekturak bere ezaugarri tekniko nagusietako bat galdu zuen, baina sagardoaren hedapen-ziklo horren oroimena baserrietan geratu zen, oraindik ere dirauena, baita gainazal diafanoak eta dolare-harriak mantentzen dituztenetan, belaualdiz belaualdi muztioa isurtzen zen lekuetan.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako sagardotegiaren historia ez da soilik garapen teknologikoa bezala ulertu behar, baizik eta fenomeno arkitektoniko eta paisajistiko bat bezala. XVI. mendeko dolare-baserriak ez ziren bakarrik sagardoa ekoizteko: nekazal-geografia aldatu zuten, ekonomia baserritarra sendotu zuten eta banda-gerren amaieraren ondorengo oparotasun ziklo laburrean lekuko material iraunkorra utzi zuten.

Gaur egun, dolareak bizirik daudenak —ekoizten ari direnak, berrituak edo isilak— garaiko aztarna dira, arkitektura, nekazaritza eta historia soziala unitate bereizgaitz batean elkartzen ziren garaiko testigantza. Ondarearen balioztatze-testuinguru horretan hartu du garrantzi berezia 'Dolareak' proiektuak, Peio Martikorena Fundazioak sustatua, Astigarragako Udalarekin eta CIF Donibane (Nafarroa), EASO Politeknikoa (EAE) eta Compagnons (Lapurdi) hezkuntza-zentroekin lankidetzan, eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak batera finantzatua. Proiektuaren ardatz nagusia XVII. mendekoa eta jatorrizko egitura-elementu ugari gordetzen dituen Etxeberri-Erbetegi dolare-baserriko dolarea zaharberritzea da.

